**192. artikulua.**– Bere eginkizunak betetzeko eta eskumenak gauzatzeko, gerenteak gerenteordeen eta, beharrezkoa denean, zuzendarien laguntza izango du. Zuzendari eta gerenteordeok errektoreak izendatuko ditu, gerentearen iritzia entzunda, eta, campuseko gerenteordeen kasuan, baita dagokion campuseko errektoreordearen iritzia entzunda ere. Kargua utziko dute gerenteak kargua utziko lukeen arrazoi berberengatik.

**193. artikulua.**– 1.– Gerenteordeek beren izendapenaren arabera dagozkien arloak zuzenduko dituzte, eta gerenteak edo errektoreak eskuordetzen dizkien eskumenak izango dituzte. Edozelan ere, campus bakoitzeko zuzendaritza administratiboa campuseko gerenteordearen lana izango da.

2.– Estatutu hauetako 190.2 artikuluan aurreikusitakoa gerenteordeei ere aplikatuko zaie.

#### IV. KAPITULUA CAMPUSETAKO ORGANOA

**194. artikulua.**– 1.– Campuseko Batzarra campus bakoitzaren gobernu eta ordezkari organoa da, ki-de anitzekoa.

2.– Hauek dira Campuseko Batzarraren zereginak:

a) Campuseko errektoreordeari bere zereginetan laguntzea.

b) Campusaren jardunaren ildo nagusiak, urteko memoria eta urteko eginkizunen plana onartzea; eta Gobernu Kontseiluari premien memoriaren, urte anitzeko programazioaren eta hizkuntza normalkuntzarako eta eleaniztasunerako politikaren berri ematea.

c) Bere arautegia behin betiko onartzea, legezkotasun txostena egin ondoren.

d) Campuseko ikastegiekin, institutu edo unibertsitatearen egiturekin, titulazioekin eta zerbitzuekin

b) Velar por el cumplimiento de los acuerdos de los órganos de gobierno generales sobre la organización material y personal de la administración universitaria.

c) Administrar, conservar y gestionar el patrimonio conforme a lo dispuesto en el Título VIII y en la normativa de aplicación, a tal efecto le compete la elaboración y actualización del Inventario de bienes y derechos.

d) Ostentar en su caso, por delegación del Rector o Rectora, la jefatura del personal de administración y servicios.

e) Cualquier otra competencia que le sea delegada por el Rectoro Rectora o conferida en los presentes Estatutos, en las normas dictadas para su desarrollo y en la legislación vigente.

**Artículo 192.**– La o el Gerente, para el ejercicio de sus funciones y desarrollo de sus competencias, estará asistido por Vicegerentas o Vicegerentes y Directores o Directoras en su caso, que serán nombradas por el Rector o Rectora oído el o la Gerenta y, en el caso de las o los Vicegerentes de Campus, además, oído el Vicerrector o Vicerrectora del Campus respectivo. Cesarán por las causas previstas para la o el Gerente.

**Artículo 193.**– 1.– Las y los Vicegerentes asumen la dirección de las áreas que conforme a su nombramiento les correspondan y ejerciendo las competencias que les delegue el o la Gerenta y en su caso, la Rectora o Rector. En todo caso la dirección administrativa de cada Campus corresponderá a un o una Vicegerenta de Campus.

2.– Será aplicable a los y las Vicegerentas lo previsto en el artículo 190.2 de estos Estatutos.

#### CAPÍTULO IV DE LOS ÓRGANOS DE LOS CAMPUS UNIVERSITARIOS

**Artículo 194.**– 1.– La Junta de Campus es el órgano colegiado de gobierno y representación del Campus Universitario.

2.– Corresponde a la Junta de Campus:

a) Asistir al Vicerrector o Vicerrectora de Campus en sus funciones.

b) Aprobar las líneas generales de actuación del Campus Universitario, su Memoria anual y el Plan anual de actividades e informar al Consejo de Gobierno acerca de la Memoria de necesidades, la programación plurianual y el desarrollo de la política de normalización lingüística y de plurilingüismo.

c) La aprobación definitiva de su Reglamento, previo el preceptivo informe de legalidad.

d) Elevar a los órganos generales de gobierno de la UPV/EHU propuestas e informes respecto de aque-

zerikusi zuzena duten proposamenak eta txostenak bidaltzea unibertsitateko gobernu organo orokorretara, eta ikastetxe nagusiak eta unibertsitate egoitzak onetsi, campusari atxiki eta bertan txertatzeaz iritzia ematea.

e) Ikasketak koordinatzea, irakaskuntza eta ikerketa behar bezala burutu daitezen zaintzea, eta campuseko kideen lan baldintzak eta elkarbizitza hobetzen laguntzea, horretarako behar diren neurriak hartuz.

f) Campusari bakarrik eragiten dioten hitzarmenak sinatzeko baimena ematea, Gobernu Kontseiluek emandako jarraibideei eutsiz.

g) UPV/EHUK campusean dauzkan ondasun eta higiezinak erabiltzeko moduari buruzko iritzia ematea.

h) Guztientzako eremuak erabiltzeko arauak ezartzea eta ikasgelak nahiz jardun akademikorako beste espazioak behar bezala aprobetxa daitezen bermatzea.

i) Bere zereginak hobeto betetzeko egoki deritzen batzordeak eratzea.

j) Estatutuok edo hauek garatzeko arautegiek ematen dizkieten gainerako eskumenak, edo unibertsitateko gobernu organoek eskuordetzen dizkietenak.

**195. artikulua.**– 1.– Era berean, Campuseko Batzarrak campuseko errektoreordea kargutik kentzea proposa diezaioke errektoreari. Horretarako, lehendabizi batzarraren heren batek ezohiko bilerarako deia egin beharko du zentsura mozioari buruzko bozketa egiteko; batzarkideen bi herenek aldeko botoa emanaz gero, zentsura mozioak aurrera egingo du.

2.– Proposamena onartuko ez balitz, sinatzaileek ezin izango dute halako proposamenik aurkeztu bozketa egiten denetik urtebete igaro arte.

**196. artikulua.**– 1.– Campuseko Batzarreko buroia campuseko errektoreordea da. Campuseko Batzarraren bilerarako deia haren arautegiak zehazten duenean egin beharko da, bai eta batzarkideen laurden batek hala eskatzen duen bakoitzean.

2.– Campuseko Batzarrak osakide hauek izango ditu: idazkaria, gerenteordea, gehienez hiru zuzendari, campuseko errektoreordeak izendatuak; ikastegi bakoitzeko dekanok edo zuzendariak; gehienez sailtetuen ordezkari bat; irakasle eta ikertzaileen zortzi ordezkari gehienez; ikastegi bakoitzeko ikasleen ordezkari bat; eta administrazio eta zerbitzu-tako langileen hiru ordezkari. Ahalegina egingo da emakumezkoen eta gizonzkoen kopuruak orekatuak izan daitezen.

llas cuestiones que afecten de manera específica a los Centros, Institutos, o estructuras propias, titulaciones y servicios del campus, así como informar el reconocimiento, adscripción e integración de Colegios Mayores y residencias del mismo.

e) Adoptar las iniciativas necesarias para coordinar las ofertas docentes universitarias y velar por la adecuada prestación de la enseñanza y el desarrollo de la investigación y contribuir a la mejora de las condiciones de trabajo y de convivencia de los y las universitarias del Campus.

f) Aprobar la firma de convenios que afecten exclusivamente al Campus, en el marco de las directrices emanadas por el Consejo de Gobierno.

g) Ser oída en cuanto a la disposición de bienes e inmuebles de titularidad de la UPV/EHU en el Campus.

h) Establecer la normativa de utilización de los espacios comunes y garantizar el adecuado aprovechamiento de las aulas y demás espacios dedicados a la actividad académica.

i) Nombrar las Comisiones que considere convenientes para el mejor ejercicio de sus funciones.

j) Cuantas otras competencias le sean atribuidas por estos estatutos o por sus reglamentos en desarrollo, o le sean delegadas por los órganos de gobierno universitario.

**Artículo 195.**– 1.– Corresponde asimismo a la Junta de Campus proponer, en su caso, al Rector o Rectora el cese del Vicerrector o Vicerrectora de Campus mediante la aprobación del voto de censura, en sesión extraordinaria convocada a tal efecto a iniciativa de un tercio de las y los miembros de la Junta y por mayoría de dos tercios de las y los mismos.

2.– Si la iniciativa no fuese aprobada, ninguna de las personas signatarias podrá participar en la presentación de otra iniciativa de este carácter hasta pasado un año desde la votación de la misma.

**Artículo 196.**– 1.– La Junta de Campus está presidida por el o la Vicerrectora de Campus. Se convocará cuando lo establezca su Reglamento y en todo caso, a petición de una cuarta parte de sus componentes.

2.– Integran la Junta de Campus: la o el Secretario, la o el Vicegerente y un máximo de 3 directores o directores nombrados por la o el Vicerrector de Campus; el o la Decana o Directora de cada Centro; un máximo de 6 representantes de los directores o directoras de Departamentos; 1 representante de los institutos con sede en el Campus; un máximo de 8 representantes del personal docente e investigador; 1 representante del alumnado de cada Centro; y 3 representantes del personal de administración y servicios. Se procurará la presencia equilibrada de mujeres y hombres.

**197. artikulua.**– 1.– Campuseko errektoreordea errektorearen ordezkari iraunkorra da, eta, beraz, agintari gorenaren campus bakoitzean. Campusaren gobernu, ordezkari eta administrazioa dira bere zereginak; guztientzako zerbitzuak kudeatzen ditu, eta unibertsitate osoarentzako jarraibide orokorrak eta Campuseko Batzarrak onetsitakoak garatzen ditu campusean.

2.– Campuseko errektoreordeak ikastegi, sail eta ikerketa institutuetan eta campusean kokatutako gainerako ataletan sortzen diren arazoak aztertzen ditu, eta behar diren erabakiak hartzen ditu bere eskumeneko gaietan, edo UPV/EHUko gobernu eta ordezkariak hartzen dituzten erabakietara bideratzen ditu.

**198. artikulua.**– 1.– Hauek dira campuseko errektoreordearen eskumenak:

a) Campuseko Batzarrean buru izatea.

b) UPV/EHUko organo orokorren eta Campuseko Batzarraren jarraibideak garatu eta aplikatzea eta haien erabakiak betetzea. Campuseko Batzarrari bere gestioaren berri emateaz gain, kontuak eman beharko ditu haren aurrean.

c) Inguruko erakunde publiko eta pribatuekiko harreman arruntetan UPV/EHUren ordezkari instituzionala izatea.

d) Unibertsitateko langileek beren lanpostuaren jabetza hartzen dutenean UPV/EHUren ordezkari izatea bere campusean.

e) Behar dituen aholku batzordeak izendatzea.

f) Eskuordetzan ematen zaizkion eskumenak erabiltzea, bai eta campuseko beste organo batzuei beren-beregi esleitu ez zaizkien gai deszentralizatueta-rako eskumenak ere.

2.– Campuseko errektoreordeei campuseko zuzendariak, campuseko gerenteordeak eta campuseko idazkariak lagunduko diete beren zereginetan.

**199. artikulua.**– 1.– Campuseko idazkariak errektoreak izendatuko ditu, campuseko errektoreordeen proposamenez. Campuseko idazkariak Campuseko Batzarraren aktak egingo ditu, eta akta liburuak egiteaz eta zaintzeaz arduratuko da; erabakiei publikitate ematea bermatu beharko du, Campuseko Batzarraren eta campuseko beste administrazio eta gobernu organoen erabakien fedea eman eta erabaki horien ziurtagiriak egingo ditu. Halaber, bere aurrean gertatzen diren edo campuseko dokumentazio ofizialean jasota dauden ekintza edo gertakarien fedea eman eta horien ziurtagiriak egingo ditu; gainera, Erregistro Orokorra eguneratua izaten lagunduko du, eta campuseko artxiboa zainduko. UPV/EHUko beste organo batzuek eskuordetzen dizkieten beste zeregin guztiak ere bete-ko ditu.

**Artículo 197.**– 1.– El Vicerrector o Vicerrectora de Campus, como representante permanente del Rector o Rectora, es la máxima autoridad universitaria del Campus. Ejerce en este ámbito el gobierno, la representación y la administración del Campus, gestionando los servicios comunes y desarrollando las líneas de actuación generales y las aprobadas por la Junta de Campus.

2.– Corresponde especialmente a la Vicerrectora o Vicerrector de Campus el estudio de los problemas suscitados en los Centros, Departamentos e Institutos Universitarios de Investigación y demás estructuras ubicadas en el Campus, adoptando las resoluciones pertinentes sobre las cuestiones de su competencia o encauzándolas hacia los órganos generales de gobierno y representación de la UPV/EHU.

**Artículo 198.**– 1.– Son competencias del Vicerrector o Vicerrectora de Campus:

a) Presidir la Junta de Campus.

b) Desarrollar y aplicar las directrices y ejecutar los acuerdos de los órganos generales de la UPV/EHU y de la Junta de Campus, a la que mantendrá informada de su gestión y ante la que será responsable.

c) Ostentar, en las relaciones ordinarias con las entidades públicas y privadas del entorno, la representación institucional de la UPV/EHU.

d) Representar a la UPV/EHU en las tomas de posesión del personal de la Universidad correspondiente a su respectivo Campus.

e) Nombrar las Comisiones asesoras que precise.

f) Ejercer cuantas competencias le sean delegadas, así como las que en materias descentralizadas no hayan sido atribuidas expresamente a otros órganos del Campus.

2.– Los Vicerrectores o Vicerrectoras de Campus estarán asistidos en el ejercicio de sus funciones por las directoras o directores de Campus, la o el Vicegerente y la o el Secretario de Campus.

**Artículo 199.**– 1.– Las y los Secretarios de Campus serán nombrados por la Rectora o Rector a propuesta de los y las Vicerrectoras de Campus. Corresponde al Secretario o Secretaria de Campus elaborar las actas de las Juntas de Campus, cuidando de la formación y custodia de los libros de actas y garantizando la publicidad de sus acuerdos, dar fe y expedir certificaciones de los acuerdos de la Junta de Campus y demás órganos de gobierno y administración del Campus, así como de cuantos actos o hechos presencia o consten en la documentación oficial del Campus, colaborar en el mantenimiento del Registro General y custodiar el archivo del Campus y cuantas otras le sean delegadas por otros órganos de la UPV/EHU.



2.– Campuseko idazkariak unibertsitateko idazkari nagusiarekin koordinatuko dituzte beren zereginak. Idazkari nagusiak irizpide bateratuak emango dizkie unibertsitate osorako onartutako arautegiak aplikatzeko.

**200. artikulua.**– 1.– Campuseko gerenteordeak laguntza emango die campuseko errektoreordeari eta Campuseko Batzarrari ondarearen eta ekonomia eta administrazioaren arloko gauza guztietan.

2.– Zehatzago, eta gerentearen jarraibideei eutsiz betiere, honako hauek egingo ditu gerenteordeak:

a) Campusaren kudeaketa ekonomikoa eta administratiboa egingo du, eta zerbitzu orokorren jarduna zuzenduko du campusean, bai eta zerbitzu orokorrei sostengua emateko zerbitzuak gidatu eta koordinatu ere.

b) Campuseko administrazio eta zerbitzuetako langileak gidatu eta koordinatuko ditu.

c) Etengabeko prestakuntza eta hobekuntza programak proposatu eta bideratuko ditu campuseko administrazio eta zerbitzuetako langileentzat.

d) Aholku emango die campuseko administrazio atalei edo campusean txertatutako erakundeei, eta beren zereginak koordinatuko ditu.

3.– Era berean, eskuordetzan ematen zaizkion gainerako eskumenak izango ditu, bai eta estatutuotan eta hauek garatzeko arauetan ematen zaizkion beste eskumen guztiak ere.

#### V. KAPITULUA

#### IKASTEGIETAKO GOBERNU, ORDEZKARITZA, ZUZENDARITZA ETA KUDEAKETA ORGANOAK

**201. artikulua.**– 1.– Hauek izango dira Ikastegiko Batzarraren osakideak, gutxienez: dekanoa edo zuzendaria (batzarreko burua izango da), idazkaria, erantzukizun handieneko administrazio eta zerbitzuetako langilea, ikastegiko atalen koordinatzaileak, eta ikastegiko arautegiak zehaztuko duen kide kopuru bat, unibertsitateko kidegoen artean banatuko dena. Ikastegien Oinarrizko Arautegiak behar diren mekanismoak ezarriko ditu hautatuak ez diren pertsonen kopuruak ez desitxuratzeko 169. artikuluan ezarritako kidegoen ordezkarien banaketa.

Ikastegiko arautegiak behar diren neurriak zehaztuko ditu emakumezkoen eta gizonezkoen kopuruak orekatuak izan daitezen.

2.– Ikastegiko Batzarrak ohiko hiru bilera egingo ditu, gutxienez, urtean. Ezohiko bilerak, berriz, batzarkideen laurden batek edo kidego bateko kide guztiek hala eskatzen dutenean egingo ditu.

3.– Bileren aktak ikastegiko arautegiak zehazten duen moduan zabalduko dira eta ikastegiko kide guztiak esku jarriko dira.

2.– Las y los Secretarios de Campus coordinarán sus actividades con el o la Secretaria General, que unificará criterios en la aplicación de las normativas generales aprobadas.

**Artículo 200.**– 1.– La o el Vicegerente de Campus asiste al Vicerrector o Vicerrectora y a la Junta de Campus en todo lo referente al área patrimonial y económico-administrativa.

2.– En particular, y siempre de acuerdo con las directrices de la Gerencia, el o la Vicegerenta:

a) Ejercerá la gestión económica-administrativa del Campus, dirigiendo y coordinando los servicios de apoyo y la actuación de los servicios Generales en el mismo.

b) Asumirá la dirección y coordinación del personal administrativo y de servicios del Campus.

c) Propondrá y desarrollará programas de formación permanente y de mejora continua del personal administrativo y de servicios del Campus.

d) Asesorará y coordinará las labores asignadas a las unidades administrativas o entidades integradas en el Campus.

3.– El o la Vicegerente de Campus ejercerá, asimismo, cuantas otras competencias le sean delegadas o le otorguen los presentes Estatutos y sus normas de desarrollo.

#### CAPÍTULO V

#### DE LOS ÓRGANOS DE GOBIERNO, REPRESENTACIÓN, DIRECCIÓN Y GESTIÓN DE LOS CENTROS DOCENTES

**Artículo 201.**– 1.– La Junta de Centro estará integrada, al menos, por el o la Decana o la o el Director que la preside, la o el Secretario, la persona de administración y servicios que ostente la máxima responsabilidad en su caso, los o las Coordinadoras de las Secciones de Centro, y un número de personas fijado por el Reglamento de Centro, distribuido entre los distintos sectores universitarios. El Reglamento Marco de Centros establecerá los mecanismos para evitar que el número de personas no electas distorsione significativamente la representación de los diferentes sectores, respecto de la establecida en el artículo 169.

El Reglamento del Centro articulará los medios para posibilitar una presencia equilibrada de mujeres y hombres.

2.– La Junta de Centro se reunirá con carácter ordinario, al menos, tres veces al año y a petición de una cuarta parte de sus integrantes o de la totalidad de un colectivo, con carácter extraordinario.

3.– Las actas de cada sesión se difundirán y estarán a disposición de cualquier persona del Centro en la forma que determine su Reglamento.

**202. artikulua.**– 1.– Ikastegiko Batzarrak ikastegiaren bizitza akademikoan eragina daukaten oinarrizko erabaki guztiak hartu behar ditu, eta zeregin hauek bete:

a) Ikastegiko arautegia prestatu eta Gobernu Kontseiluari proposatzea, onar dezan.

b) Ikastegiko dekanu edo zuzendaria hautatzea, ikastegiko arautegian hala aurreikusita badago.

c) Gobernu organoei irakasleen plantillan eta administrazio eta zerbitzuetako langileen plantillan dauken beharrianak aurkeztea.

d) Unibertsitateko planetan jasotako helburuak ikastegira egokitzeko plana onartzea.

e) Hizkuntza normalkuntzako planak betetzeko eta planoari jarraipena egiteko ikastegiak dauzkan premien memoriak aurkeztea Campuseko Errektoreordetzari, hark errektoreari edo, hala dagokionean, Gobernu Kontseiluari bidera diezazkion.

f) Ikastegiari atxikitako irakasle lanpostuen eskari- en txostena egitea.

g) Ikasketa planak eta beren aldaketak egin eta proposatzea Gobernu Kontseiluari, bai eta titulazioak ezarri, aldatu eta kentzeko proposamenak ere.

h) Irakaskuntzarako azpiegituren planak edo irakaskuntzan nahiz ikerketan sortutako bestelako premien planak osotasunean aztertu eta dagokionean onartzea, ikastegiari atxikitako sailen edo sail atalen proposamenez.

i) Ikastegiak eskaintzen dituen ikasketen kalitatea aldiro ebalua dadin bermatzea, eta unibertsitatearen zerbitzu publikoa hobetzeko neurriak proposatzea.

j) Bere zereginak betetzeko egoki deritzen batzordeak eratzea.

k) Estatutuok eta hauek garatzeko arauak haren gain uzten dituzten gainerako eginkizun guztiak, edo UPV/EHUko gobernu organoek eskuordetzen dizkitenak.

2.– Ikastegiko Batzarrak batzorde iraunkor bati eskuordetu ahal izango dizkio bere eginkizunak. Batzordearen osaera ikastegiko arautegiak zehaztuko du, baina, betiere, kidegoek Ikastegiko Batzarrean daukaten ordezkarien ehuneko berberak izango dituzte.

3.– Edozelan ere, batzarrak ezin izango ditu eskuordetu lehen ataleko a), b), g) eta j) paragrafoetan aipatutako eginkizunak.

**203. artikulua.**– 1.– Dekano edo zuzendariak fakultate edo eskolen gobernu, ordezkaritza eta administraziorako organoak dira.

2.– Zuzendariak eta dekanuak ikastegiari atxikitako irakasle eta ikertzaile iraunkor doktoreen artean hautatuko dira eta errektoreak izendatuko ditu. Ha-

**Artículo 202.**– 1.– Corresponde a la Junta de Centro adoptar todas las decisiones fundamentales que afecten a la vida académica del Centro y, en particular, las siguientes:

a) Elaborar y proponer al Consejo de Gobierno, para su aprobación, el Reglamento del Centro.

b) Elegir al Decano o Decana o al Director o Directora del Centro, si así lo prevé el Reglamento del Centro.

c) Elevar a los órganos de gobierno las necesidades de plantillas del profesorado y del personal de administración y servicios del Centro.

d) Aprobar el plan de adecuación al Centro de los objetivos contenidos en los planes universitarios.

e) Elevar al Vicerrectorado de Campus, para su tramitación ante la o el Rector o, en su caso, al Consejo de Gobierno, las Memorias de necesidades para cumplir los planes de normalización lingüística y realizar el seguimiento de dichos planes.

f) Informar las solicitudes de plazas de profesorado adscrito al Centro.

g) Elaborar y proponer al Consejo de Gobierno los planes de estudio y su modificación, así como la implantación, modificación y supresión de titulaciones.

h) Aprobar, a propuesta de los Departamentos o Secciones Departamentales adscritos al Centro y previa valoración de conjunto, los planes de infraestructuras docentes o de otras necesidades derivadas de la docencia e investigación.

i) Garantizar la realización de evaluaciones regulares de calidad sobre las ofertas docentes del Centro y proponer medidas de mejora del servicio público universitario.

j) Constituir cuantas comisiones delegadas juzgue oportunas para el ejercicio de sus funciones.

k) Cuantas otras le confieran los presentes Estatutos y su normativa de desarrollo o le sean delegadas por los órganos de gobierno de la UPV/EHU.

2.– La Junta de Centro podrá delegar sus funciones en una Comisión Permanente cuya composición vendrá fijada en el Reglamento del Centro, manteniendo los mismos porcentajes de representación por sectores que en la Junta del Centro.

3.– En ningún caso serán funciones delegables las establecidas en los párrafos a), b), g) y j).

**Artículo 203.**– 1.– Las y los Decanos o Directores son órganos de gobierno, representación y administración de las Facultades o Escuelas.

2.– Los Directores, los Decanos, las Directoras y las Decanas se elegirán de entre el personal docente e investigador permanente doctor adscrito al respectivo

lako irakaslerik ez balego, irakasle eta ikertzaile iraukorren artean aukeratuko lirateke.

3.– Ikastegiko arautegiak hauteskunde sistema eta prozedura ezarriko ditu. Sufragio unibertsalaren bidez nahiz Ikastegiko Batzarraren bitartez aukeratu ahalko da zuzendari edo dekanoa.

4.– Agintaldia lau urtekoa izango da. Ikastegiko arautegiak mugatu ahal izango du zenbat agintaldi egin daitezkeen segidan.

5.– Dekano edo zuzendariak estatutuotako 180.2 artikuluan jasotako arazoengatik utziko dute kargua. Hauteskundeak sufragio unibertsalaz egin badira, dekanoa edo zuzendariak 172. artikuluan jasotako arazoengatik utziko dute kargua, horko aurreikuspenak Ikastegiko Batzarrari aplikatuta. Dekano edo zuzendariak Ikastegiko Batzarrak hautatu badu, zentsura mozioaren bidez utzarazi ahalko zaio kargua, ikastegiko oinarrizko arautegian aurreikusitakoari jarraiki.

**204. artikulua.**– 1.– Hauek dira dekanoa edo zuzendariaren zereginak:

a) Ikastegiaren ordezkaria izatea eta ikastegiari atxikitako langile guztien zuzendari funtzionala izatea.

b) Ikastegiaren jarduera guztiak gidatu, koordinatu eta gainbegiratzea.

c) Ikastegiko kide anitzeko organoetan buru izatea.

d) Ikastegiko Batzarraren, gobernu organo orokorren eta dagokion campuseko organoen jarraibideak aplikatzea eta haien erabakiak betetzea.

e) Errektoreari bere eskumeneko izendapenak proposatzea.

f) Ikastegiko Batzarrari urteko memoria eta plana aurkeztea.

g) Irakasleek beren irakaskuntza betekizunak betetzen dituztela gainbegiratzea, Ikuskaritza Zerbitzuarekin lan eginez.

h) Horretarako eskumena duten zerbitzu teknikoekin koordinaturik, ikastegiko leku guztien higieña eta segurtasuna bermatzea, eta horretarako behar diren neurriak hartzea.

i) Ikastegiko kideen eskari eta proposamenak bideratzea.

j) Ikastegiaren ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza bultzatzea.

k) Gainerako gobernu organoek eskuordetan ematen dizkieten gainerako eginkizunak, edo unibertsitateari buruzko legeriak, estatutuok edo hauek garatzeko arauak esleitzen dizkietenak eta, beren-beregi beste organo batzuei esleituta egon barik, ikastegiarekin zerikusia daukaten eginkizunak.

Centro y su nombramiento corresponde al Rector o Rectora. En su defecto, se elegirá de entre el personal docente e investigador con vinculación permanente.

3.– El Reglamento de Centro establecerá el sistema y procedimiento de elección, que podrá hacerse mediante sufragio universal o por elección de la Junta de Centro.

4.– La duración del mandato será de cuatro años. El Reglamento de Centro podrá limitar el número de mandatos consecutivos.

5.– Las y los Decanos o Directores cesan por las causas recogidas en el artículo 180.2 de estos Estatutos. En el supuesto de elección por sufragio universal, podrán ser cesados conforme a las previsiones del artículo 172, aplicadas a la Junta de Centro. En el supuesto de elección por la Junta de Centro, se les podrá cesar mediante la aprobación de una moción de censura, según lo previsto en el Reglamento Marco de Centro.

**Artículo 204.**– 1.– Corresponde a los y las Decanas o Directoras:

a) Ostentar la representación del Centro y la dirección funcional de todo el personal adscrito al mismo.

b) Dirigir, coordinar y supervisar todas las actividades del Centro.

c) Presidir los órganos colegiados del Centro.

d) Aplicar las directrices y ejecutar los acuerdos de la Junta de Centro y de los órganos de gobierno generales y del Campus respectivo.

e) Proponer al Rector o Rectora los nombramientos de su competencia.

f) Presentar a la Junta de Centro la Memoria y el Plan anuales.

g) Supervisar el cumplimiento de las obligaciones docentes del profesorado, colaborando con el Servicio de Inspección.

h) Velar, en coordinación con los servicios técnicos competentes, por las condiciones de higiene y seguridad de las distintas dependencias del Centro, proponiendo, en su caso, la adopción de las medidas oportunas.

i) Dirigir y canalizar las peticiones y sugerencias de la Comunidad Universitaria del Centro.

j) Impulsar la evaluación y la mejora continua del Centro.

k) Cuantas funciones le deleguen los demás órganos de gobierno o le sean atribuidas por la legislación universitaria, los Estatutos o sus normas de desarrollo, y aquellas referidas al Centro que no hayan sido atribuidas expresamente a otros órganos.

2.- Era berean, dekanok edo zuzendariak lankide-tza hitzarmenak sinatuko ditu, Gobernu Kontseiluak emandako jarraibideei eutsiz.

**205. artikulua.**- 1.- Errektoreak irakaslanetik salbuetsi ahal izango ditu dekanok edo zuzendariak, neurri batean edo erabat.

2.- Agintaldia amaituta, eta karguan hiru urte edo gehiago eman badituzte, eskubidea izango dute irakaslanetik beste urtebetez salbuetsita egoteko, irakas-kuntzan eta ikerketan eguneratze aldera.

**206. artikulua.**- 1.- Errektoreak, dekanok edo zuzendariak proposatuta, dekanorde edo zuzendariordeak izendatuko ditu behar diren baldintzak betetzen dituzten ikastegiko irakasle eta ikertzaileen artean. Ahalegina egingo da emakumezkoen eta gizonezkoen kopuruak orekatuak izan daitezen.

2.- Dekanorde edo zuzendariordeek dekanok edo zuzendariak eskuordetzen dizkien eginkizunak beteko dituzte, eta beren izendapenean zehazten diren arloen zuzendaritza hartuko dute.

3.- Honako hauek izango dira kargua uzteko arrazoiak: dimisioa, heriotza, ezintasun legala, kargurako gaitasuna kenduta izatea, UPV/EHUko kide izateari uztea edo errektoreak hala erabakitzea, dekanok edo zuzendariak proposatuta.

4.- Dekanok edo zuzendaria gaixorik edo kanpoan balego, izendapenean beren-beregi horretarako zehaztutako dekanorde edo zuzendariordeak egingo lioke ordezkoa. Zuzendariak sei hilabete baino gehiago emango balitu gaixorik edo kanpoan, jardunean dagoen dekanorde edo zuzendariordeak hauteskuntdeetarako deia egingo luke.

**207. artikulua.**- 1.- Idazkari akademikoa errektoreak izendatuko du, dekanok edo zuzendariak proposatuta, eta jardunean dagoen irakasle bat izango da. Dekanorde edo zuzendariordeen arrazoi berberengatik utziko du kargua.

2.- Idazkari akademikoa ikastegiko gobernu, ordezkaritza eta administrazioarako kide anitzeko organoen ekintza eta erabakien fedea ematen du; akta liburuak egiteaz eta zaintzeaz arduratzen da eta ziurtagiriak egiten ditu, hala erabakienak nola bere aurrean gertatzen diren ekintza eta gertakari guztienak edo ikastegiko dokumentazio ofizialean jasota daudenak.

**208. artikulua.**- 1.- Errektoreak irakaslanetik salbuetsi ahal izango ditu ikastegiko dekanorde, zuzendariorde eta idazkariak, gehienez ere arduraldiaren erdiraino.

2.- Agintaldia amaituta, eta karguan hiru urte edo gehiago eman badituzte, eskubidea izango dute ira-

2.- Corresponden, igualmente, a la o el Decano o Director la suscripción de convenios de colaboración en los términos que se establezca por las directrices del Consejo de Gobierno.

**Artículo 205.**- 1.- Las o los Decanos o Directores podrán ser eximidos de sus obligaciones docentes, total o parcialmente, por el o la Rectora.

2.- Finalizado su mandato, tendrán derecho a mantener la misma reducción de sus obligaciones docentes durante un período adicional de un año para su actualización docente e investigadora, siempre que hayan permanecido en el cargo correspondiente durante un período igual o superior a tres años.

**Artículo 206.**- 1.- El Rector o Rectora, a propuesta de la o el Decano o Director, nombrará Vicedecanos o Vicedecanas o Subdirectoras o Subdirectores de entre el personal docente e investigador del Centro que reúna los requisitos exigidos. Se procurará la presencia equilibrada de mujeres y hombres.

2.- Las y los Vicedecanos o Subdirectores ejercerán las funciones que en ellos delegue la o el Decano o Director, asumiendo la dirección de las áreas mencionadas en su nombramiento.

3.- Cesarán por dimisión, fallecimiento, incapacidad legal o inhabilitación, por dejar de pertenecer a la UPV/EHU y por resolución del Rector o Rectora, a propuesta del o de la Decana o Directora.

4.- En caso de ausencia o enfermedad, sustituirá a la o el Decano o Director, el o la Vicedecana o Subdirectora designada expresamente en el nombramiento. Si la enfermedad o ausencia se prolongara por más de seis meses, la o el Vicedecano o Subdirector que venga actuando como Decano o Decana, Director o Directora en funciones convocará nuevas elecciones.

**Artículo 207.**- 1.- La o el Secretario Académico del Centro será nombrado por el Rector o Rectora, a propuesta de la o el Decano o Director. El nombramiento recaerá en un profesor o profesora en activo. Cesará por las mismas causas que los y las Vicedecanas o Subdirectoras.

2.- El o la Secretaria Académica es la fedataria de los actos y acuerdos de los órganos colegiados de gobierno, representación y administración del Centro, cuida de la formación y custodia de los libros de actas y libra las certificaciones oportunas de los acuerdos y de cuantos actos o hechos presencie o consten en la documentación oficial del Centro.

**Artículo 208.**- 1.- Las y los Vicedecanos, Subdirectores y Secretarios de Centro podrán ser eximidos por el Rector o Rectora de sus obligaciones docentes hasta un máximo de la mitad de su dedicación.

2.- Finalizado su mandato, tendrán derecho a mantener la misma reducción de sus obligaciones do-

kaslanetik beste sei hilabetez salbuetsita egoteko, irakaskuntzaren eta ikerketaren arloan eguneratze aldera.

## VI. KAPITULUA

### SAILETAKO GOBERNUA, ORDEZKARITZA, ZUZENDARITZA ETA KUDEAKETA ORGANOA

**209. artikulua.**– 1.– Sailaren gobernua Kontseiluaren eta zuzendariaren eginkizuna da.

2.– Hauek izango dira Saileko Kontseiluaren osakideak: zuzendaria, idazkaria, irakasle iraunkor guztiak eta irakasle ez-iraunkor doktore guztiak, sailari atxikitako gainerako irakasleen ordezkariaren bat (saileko arautegiak zehaztuko du zenbat), sailak ematen duen ziklo bakoitzeko ikasleen ordezkari bat gutxienez, eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat, gutxienez.

**210. artikulua.**– Arautegiak aurreikusita eduki ahal izango du kontseiluaren batzorde iraunkor bat sortzea. Batzorde hori osatuko dute zuzendariak, idazkariak, sail atalen koordinatzaileak eta hiru kidegoen ordezkariak, Sailen Oinarrizko Arautegian xedatutakoaren arabera.

**211. artikulua.**– 1.– Saileko Kontseiluak ohiko bilera egingo du urtean behin gutxienez, eta ezohiko bilera egingo du kideen heren batek edo kidego bateko kide guztiak hala eskatzen dutenean.

2.– Hauek dira Saileko Kontseiluaren eginkizunak:

a) Saileko zuzendaria hautatzea arautegiak xedatutakoari jarraiki.

b) Urteko txosten ekonomikoa, saileko irakaskuntzaren eta ikerketaren memoria, eta eginkizunen plan onartzea.

c) Urteko irakats eskaintza programatu eta ebaluatzeo irizpideak onartzea.

d) Saileko irakasleei irakats betebeharrak eta haien balizko aldaketak esleitzea.

e) Irakasgaien oinarrizko programak ezartzea, kasuan kasuko ikasketa planaren barruan.

f) Masterreko, doktoregoko eta gainerako ikasketetako (unibertsitateko berezko tituluak ikasketak izan edo ez) eskaintzak proposatzea.

g) Doktorego tesiak ebaluatu behar dituzten pertsonak izendatzeko proposamenak onartzea legeak baimendutako baldintzetan, bai eta bestelako epaimahaietako kideak izendatzekoak ere.

h) Saileko irakasle eta ikertzaileen ikerketa jarduerak eta ekimenak bultzatzea.

centes durante un período adicional de seis meses para su actualización docente e investigadora, siempre que hayan permanecido en el cargo correspondiente durante un período igual o superior a tres años.

## CAPÍTULO VI

### DE LOS ÓRGANOS DE GOBIERNO, REPRESENTACIÓN, DIRECCIÓN Y GESTIÓN DE LOS DEPARTAMENTOS

**Artículo 209.**– 1.– El gobierno del Departamento corresponde a su Consejo y a su Directora o Director.

2.– El Consejo del Departamento estará formado por el o la Directora, la o el Secretario, todo el profesorado permanente y todo el profesorado doctor no permanente, una representación del resto del profesorado adscrito al Departamento fijado por su Reglamento, al menos una persona representante del alumnado por cada ciclo de docencia que imparta y, al menos, una persona representante del personal de administración y servicios.

**Artículo 210.**– El Reglamento podrá contemplar la creación de una Comisión Permanente, integrada por personas del Consejo, formada por la o el Director, la o el Secretario, los o las Coordinadoras de las Secciones Departamentales y representantes de los tres sectores, de conformidad con lo previsto en el Reglamento Marco de Departamentos.

**Artículo 211.**– 1.– El Consejo de Departamento se reunirá con carácter ordinario, al menos, una vez al año y a petición de un tercio de sus componentes o de la totalidad de un colectivo, con carácter extraordinario.

2.– Son funciones del Consejo de Departamento:

a) Elegir al Director o Directora del Departamento conforme a lo establecido en su Reglamento.

b) Aprobar el Informe económico anual, la Memoria docente e investigadora del Departamento y su Plan de actividades.

c) Aprobar los criterios de programación y evaluación para la oferta docente anual.

d) Asignar el encargo docente de su personal y sus eventuales modificaciones.

e) Establecer los programas básicos de las asignaturas en el marco del plan de estudios correspondiente.

f) Proponer ofertas de estudios de máster, doctorado y demás enseñanzas conducentes o no a títulos propios universitarios.

g) Aprobar las propuestas de nombramiento de quienes hayan de evaluar las Tesis Doctorales, en los términos en que lo autorice la Ley, así como de quienes deban componer los demás tribunales.

h) Apoyar las actividades e iniciativas investigadoras de su personal docente e investigador.



i) Plaza berriak eskatzea eta saileko langileen lanpostuen zerrendan egin beharreko aldaketak proposatzea.

j) Irakasleen lanari buruzko txosten arrazoituak egitea, irakaskuntza merezimenduak esleitu eta kontratuak berritze aldera.

k) Bere eskumenen esparruan, kontratuak egiteko baimena ematea, zientziaren, teknikaren edo artearen arloko lanak egiteko.

l) Venia docendi eman behar bada, aurretiko txostena egitea.

m) Indarreko legeriak, estatutuok eta hauek garatzeko arauak bere gain uzten dituzten gainerako guztiak, bai eta eskuordetzen zaizkionak ere.

3.- Batzorde Iraunkorrek beteko ditu, alde batetik, bere arautegiaren arabera kontseiluak eskuordetutako eginkizunak, eta, bestetik, kontseiluak une jakinetan eskuordetzen dizkionak. Edozelan ere, kontseiluak ezin izango dizkio eskuordetu ez zuzendaria aukeratzeko eskumena, ez saileko arautegia onartzekoa.

4.- Bileren aktak saileko arautegiak zehazten duen moduan zabalduko dira eta saileko kide guztien esku jarriko dira.

**212. artikulua.**– 1.– Zuzendaria Saileko Kontseiluak aukeratuko du, saileko kide diren irakasle eta ikertzaile iraunkor doktoreen artean, eta UPV/EHU-ko errektoreak izendatuko du.

2.– Saileko zuzendaririk ez balego, Saileko Kontseiluaren bilerarako deia egingo da, oinarritzko arautegiak ezarrita daukanari jarraiki, hark behar diren neurriak har ditzan sailak behar bezala jarduteko.

3.– Zuzendariaren agintaldia lau urtekoa izango da eta ikastegiko arautegiak mugatu ahal izango du zuzendariak zenbat agintaldi egin ditzakeen segidan.

4.– Zuzendariak estatutuotako 180.2 artikuluan jasotako arrazoientatik utziko dute kargua. Haien aurkako zentsura mozioa onartuz gero ere utziko dute kargua, Sailen Oinarritzko Arautegian aurreikusita dagoen legez.

**213. artikulua.**– Campus edo ikastegi desberdinetan diharduten sailetan sail atalak eratu ahal izango dira, Sailen Oinarritzko Arautegiaren arabera. Atalak koordinatzaile bat izango du.

**214. artikulua.**– 1.– Hauek dira saileko zuzendariaren eginkizunak:

a) Sailaren ordezkaria izatea.

b) Saileko Kontseiluko burua izatea, baita, dagoeneko, saileko Batzorde Iraunkorreko burua ere, saileko arautegiari jarraiki.

i) Solicitar la dotación de nuevas plazas y proponer las modificaciones oportunas de las relaciones de puestos de trabajo de su personal.

j) Informar motivadamente sobre la actividad docente del profesorado a efectos de la asignación de méritos docentes y de renovación de contratos.

k) Autorizar la celebración de contratos para la realización de trabajos científicos, técnicos o artísticos, en el marco de su competencia.

l) Informar, en su caso, con carácter previo sobre la concesión de venia docendi.

m) Cuantas otras le otorguen la legislación vigente, los presentes Estatutos y sus normas de desarrollo, así como cuantas otras le sean delegadas.

3.– La Comisión Permanente ejercerá, en su caso, por delegación, aquellas funciones del Consejo que establezca su Reglamento y las que puntualmente le delegue éste. La delegación en ningún caso comprenderá la elección del Director o Directora ni la aprobación del Reglamento del Departamento.

4.– Las actas de cada sesión se difundirán y estarán a disposición de cualquier persona del Departamento en la forma que determine su Reglamento.

**Artículo 212.**– 1.– La o el Director es elegido por el Consejo del Departamento, de entre el personal docente e investigador permanente doctor miembro del mismo, y nombrado por la Rectora o Rector.

2.– En el supuesto de inexistencia de Directora o Director de Departamento, se convocará al Consejo de Departamento, conforme lo que disponga el Reglamento Marco, para que adopte las medidas oportunas que aseguren su funcionamiento.

3.– El mandato del Director o Directora será de cuatro años. El Reglamento de Departamento podrá limitar el número de mandatos consecutivos.

4.– Los y las Directoras cesan por las causas recogidas en el artículo 180.2 de estos Estatutos. También cesarán mediante la aprobación de una moción de censura, según lo previsto en el Reglamento Marco de Departamentos.

**Artículo 213.**– En aquellos Departamentos que desarrollen sus actividades en distintos Campus o Centros Docentes se podrán constituir Secciones Departamentales, de conformidad con lo previsto por el Reglamento Marco de Departamentos, que preverá la existencia de un Coordinador o Coordinadora de Sección.

**Artículo 214.**– 1.– Corresponden al Director o Directora del Departamento las funciones siguientes:

a) Representar al Departamento.

b) Presidir el Consejo del Departamento y, en su caso, su Comisión Permanente, de acuerdo con el Reglamento del Departamento.

c) Saileko kideen eskari eta proposamenak jaso eta bideratzea.

d) Saileko administrazio eta zerbitzuetako langile-en zuzendari funtzionala izatea.

e) Sailaren urteko memoria, eginkizunen plana eta txosten ekonomikoa egitea.

f) Saileko kide anitzeko organoek hartutako erabakiak betetzea.

g) Irakaskuntza normaltasunez eta benetan eman dadin zaintzea.

h) Zientzia, teknika, giza zientzia eta artearen arloko ikerlanak egiteko sailak egiten dituen kontratuak sinatzea.

i) Saileko beste organo batzuei eman ez zaizkienak, unibertsitateko gobernu organoek eskuordetutakoak eta estatutuok nahiz indarreko legeriak esleitzen dizkietenak.

2.- Era berean, lankidetzaz hitzarmenak ere sinatu-ko ditu, Gobernu Kontseiluaren jarraibideei eutsiz.

**215. artikulua.**— Errektoreak irakaslanetik salbuesi ahal izango ditu zuzendariak, gehienez ere arduraldiaren erdiraino.

**216. artikulua.**— 1.— Saileko idazkaria errektoreak izendatuko du, zuzendariak proposatuta. Jardunean dagoen irakasle edo ikertzaile bat izango da.

2.— Honako hauek izango dira kargua uzteko arrazoiak: dimisioa, heriotza, ezintasun legala, kargurako gaitasuna kenduta izatea, UPV/EHUko kide izateari uztea edo errektoreak hala erabakitzea, zuzendariak proposatuta.

3.— Idazkariak saileko gobernu, ordezkari eta administratzaile kide anitzeko organoen ekintza eta erabakien fedea ematen du; akta liburuak egiteaz eta zaintzeaz arduratzen da eta ziurtagiriak egiten ditu, hala erabakienak nola saileko dokumentazio ofizialean jasota dauden ekintza edo gertakariak.

#### VII. KAPITULUA

UNIBERTSITATEKO IKERKETA INSTITUTUETAKO,  
DOKTOREGO ESKOLETAKO ETA BESTELAKO  
GUNE, EGITURA EDO ENTITATEETAKO  
GOBERNU, ORDEZKARITZA, ZUZENDARITZA ETA  
KUDEAKETA ORGANOK

**217. artikulua.**— 1.— Unibertsitateko ikerketa institutu-  
tuetako zuzendariak institutuen ordezkariak dira eta institutuen zuzendaritza eta kudeaketa arruntaz arduratzen dira.

2.— Unibertsitateko ikerketa institutu bakoitzeko arautegiak zehaztuko du zelan osatuko den Institutuko Kontseilua (betiere institutuarekin zerikusia duten

c) Recibir y canalizar las peticiones y sugerencias de las personas integrantes del Departamento.

d) Dirigir funcionalmente al personal de administración y servicios adscrito al mismo.

e) Elaborar la Memoria anual, el Plan de actividades y el Informe económico del Departamento.

f) Ejecutar los acuerdos adoptados por los órganos colegiados del Departamento.

g) Supervisar la normal y efectiva impartición de la docencia.

